

Kaixo, lagunok!

Zer moduz? Ondo pasa dituzue azken asteak?

Gauza asko ikasi dituzue:

- Badakizue nire izena.
- Badakizkizue lagunena izenak.
- Badakizkizue gelako gauzen izenak.
- Badakizue zeintzuk diren Beñat eta Irati eta beraien familia ezagutu duzue.
- Badakizkizue zenbakien eta koloreen izenak.

Badakizue zer ikasi eta zer ikusiko dugun datozen egunetan? Ez?

Hasteko, horma-irudi batean Irati eta Beñat ikusiko dituzue. Irudi hori gorputz-atalen izenak ikasteko erabiliko dugu. Denok ezberdinak garela konturatuko gara.

Ondoren, gorputzeko atalen izenak ikasteko jolasak egingo ditugu.

Horren ostean, Beñat eta Irati nola dauden jantzita ikusiko dugu. Zein arropa jantzi behar dugu eguraldi txarra egiten duenean? Eta bero egiten duenean? Primeran pasatuko dugu ebakigarriekin jolasean!

Bukatzeke, ikasitako guztia erabiltzeko, panpina bat egingo duzue, gorputz-atalak lotu eta jantzi egingo duzue. Gero, gelakoei aurkeztuko diezue zuek egin duzuen panpina.

Ikusiko duzue zelako ondo pasatuko dugun!

Aio, Pelaió!

